


JAKINGARRIAK

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte - IRAKASLE ESKOLA - Eskoriatza



PRENTSA ETA IRRATIA ESKOLAN

16. ZENBAKIA

1990eko Apirila

JAKINGARRIAK

JAKINGARRIAK ZER DA?

“JAKINGARRIAK” Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasoten eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu diren baliabideak erizpide batzuen arabera izan dira aukeratuak:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak
- Komunikazioarako eta elkarekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruan erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, baita Euskara-koordinatzailearekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin liteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
 - Diapositibak
 - Bideoak
 - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak:

Irakasle Eskola: Nerea Alzola
Mariam Bilbatua

Euskara-Teknikaria: Resu Abasolo
(Oharra: Komenigarria da etorri nahi dutenek aurrez abisatzea)

JAKINGARRIAK

16. ALE HONETAN

AURKITUKO DITUZUN INFORMAZIOAK

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

Liburu berrien albisteak

ANAUT, L. eta taldea -Globalizazioa, sistema ireki baten barruko bizi bilakabide gisa. Eskola publiko batean: - Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1989

MONSON, D. L. Mc CLENATHAN, D. A. -"Crear lectores activos"- VISOR, Madrid, 1989.

Itzulpenak

BRONCKART, J. P. -"Normas gramaticales y didáctica de la lengua"-

Ginebrako Unibertsitatea. 1983.eko apirila.

Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak eta batzuen itzulpenak.

Itzulpenak:

Orsoni, B. "Primera infancia, primera televisión".

Clement, C. "El cuento".

GAI MONOGRAFIKOA

Prentsa eta Irratia Eskolan

ESKOLETAKO ESPERIENTZIAK.

- Irratia Haur-Eskolan: Bi esperientzia.
 - Xagu Irratia, Donostiako Ategorrieta Eskolan.
 - Tirri-Tarra Irratia, Donostiako Katalina de Erauso Eskolan.
- Irratia eta Prentsa Hasiera Zikloan, Aretxabaletako Kurtzeberri Eskolan.
- Hizkuntzaren jabetze prozesua bizkortzeko eta komunikazio funtzioak hedatzeko, Prentsa eskolarraren bidez. "Donostiako Auzoka" Proiektua.
- "Luis Miguel Martínez"i elkarrizketa.

BALIABIDEAK

Ipuina kontatzeko salgai dauden hainbat irudi lagungarri.

LIBURU BERRIEN ALBISTEAK



ANAUT, Loli eta TALDEA (Donostiako Amara Berri Eskola).-

“Globalizazioa, sistema ireki baten barruko bizi bilakabide gisa”.- Eusko Jaurlaritz, Gasteiz 1989.-501 or.

Amara Berriko esperientzia aspaldidanik ezaguna egiten zaigu. Nahiz eta ezagutza hori txikia izan, bisitek, materialen ezagutzak, hitzaldiek, harremanek,... ekioparen lanari buruz hainbat datu eman digute.

Hona hemen, liburu hau, bi hizkuntzatan idatzia, Amara Berriko Eskolan ematen den Pedagogi Prozesuaren berri emanez.

Pozgarria da, gure Herrian bizi den esperientzia pedagogiko bat idatziz ikustea, suposatzen duen balorazio, iraunkortasun eta sistematizazioagatik.

Liburuan, lanaren koordinatzaileak adierazten duen bezala, hiru irakurketa maila aurki dezakegu:

1. Oinarrizko kontzeptuak eta teoria, helburuak, apendizaiaren kontzeptzioa,...
2. Ekintzen antolaketa, behaketa eta ebaluaziorako pistak, espazioak, materialak, etab.
3. Arlo bakoitzaren prozesua, garapena eta sistematizazioa Haur-Eskolan (3-6 urte)

* Liburuaren 1.zatian, autoreak eguneroko

esperientzia kontatzen digu:

Euskarazko saio kolektiboak, Etxea, Jolasak, Margotegia, Antzerkia, Inprimategia, Denda.


Arlo hauetan, haurrak ikusi egiten ditugu lanean, jolasean,... eta momentu berean, autoreak esplikatzen egiten digu ekintzaren oinarria, antolaketa, etab.

Zentruaren bisita gidatua egiten ari gara.

* Liburuaren 2. zatian arlo desberdinen oinarriak, helburuak, metodologia eta Haur-Eskolako prozesua progresiboki azaltzen dira: Esperientzia eta Afektibo-Soziala, Soin-Mugimendu Heziketa, Matematika, Plastika arloak.

Arlo denak, Esperientzia eta Plastika arloak ezik, oso landuta daude: helburuak, prozesua, ekintzak,...

Material hau oso aberatsa eta lagungarria izan daiteke hainbat irakasle eta eskolarentzat, batez ere Proiektu Pedagogiko osoarengatik (sistematizazioa, progresioa,...), ahaztu gabe ematen dizkigun proposamenak, ideak, baliabideak,...



DIANNE L. MONSON ETA DAYANN K. MC CLENATHAN

“Crear lectores activos
Propuestas para los padres, maestros y bibliotecarios.”
Aprendizaje. Visor, MADRID 1989.

Pertsonaren garapenerako funtsezko elementutzat hartzen delarik irakurketa, haurrengan irakurtzeko zaletasuna eta gaitasuna

garatzeko ahaleginetan oso erabilgarriak diren zenbait artikulua biltzen da liburu honetan.

Bi sail handitan banatzen dira liburu honetan jasotako artikuluek; lehenengoan, liburuak aukeratzeko eta liburutegia antolatzeko ideia interesgarriak eskaintzen dira.

Bigarreanean, haurrek liburuekin harreman sakonagoa izan dezaten ideiak ematen dira.

Lehen artikulua-multzoaren barnean, interesen galdesorta orijinal batekin egiten dugu topo, irakurketari buruzko ikasleen egoera ezagutzeko delarik.

“La selección de libros infantiles en el mundo actual” artikuluan, egungo literaturgintzaren esparruan aukeratu beharrak planteatzen dituen arazoei buruzko gogoeta interesgarriak egiten ditu Ruth Kearney Carlson-ek, autozentsuraren edo hautatzeko erizpide-ezaren arriskuen artean.

“El alumno de enseñanza básica en la biblioteca” artikuluan, bibliotekari buruz garatu litekeen trebetasun eta nozioen zerrenda egiten da, aldi berean, trebetasun horietako bakoitza lantzeko zertu litekeen ekintzak zehazten direlarik.

Bigarren zatiko artikuluek zenbait estrategia proposatzen dute, haurra liburu mundura

hurbiltzeko ekintzak.

Irakurketa garatzeko ikuspegi honetatik, taldeko irakurketa, dramatizazioa edo ikusentzunezko baliabideen erabilera bezalako ekintza konkretuak aitzertzen dira.

Bigarren zati honetan, Jeanne Elisenbarth-ek aparteko irakurleekin gauzatutako proiektu baten proposamenetarikoz batzuk azaltzen dira, proiektuaren helburua irakurketa-interesak eta liburutegiaren erabilerari buruzko trebetasunak zabaltzea izan zelarik. Ekintza hauetan, testuetan aurkitutako egoerak eta pertsonaiak ebokatzen dira, eta berauetan oinarrituz, liburuaren edukietan sakontzen laguntzeko egin litekeen zenbait ekintza planteatzen zaio irakurleari.

Irakurketarako interesa eta zaletasuna garatzeko ikuspegi honetatik, gurasoen eginkizuna eta liburuak batera edo elkarrekin irakurtzea ere aitzertzen dira.

Irakurketa atseginekoa den liburu honetan zehar, haurrekin lan egiteko interesgarriak diren proposamen asko aurkituko dugu, eta beraz, hezitzaile guzientzat erabilgarria izan litekeela pentsatzen dugu.

ITZULPENAK

BRONCKART, J.P.

«Normas gramaticales y didácticas de la lengua»

Ginebrako Unibertsitatea, 1983ko Apirila.

Sarri askotan hizkuntz irakaskuntz formalista, gramatikalista kritikatatu badugu ere, gutxitan astertu dugu ohitura honen jatorria, hau da, zer dela eta eskolak irakasten du amahizkuntza gramatika tradizionalaren bidez? edota hobeto esanda, -zer

dela eta irakasten du amahizkuntz latineko gramatikaren bidez?

Irakurleak, artikulu honetan, galdera honen erantzuna aurkituko du. Erantzun hori ulertzeko, historiari begiratu, e ta ikusi ahal izango du, praktika hau, hainbat gertakariren ondorio dela. Baina erreflesio lan honen ez du bere helburua betetzeak joko, baldin eta ez badakigu bertatik ateratzen zein arrazoi gutxi daukagun, gaurregun, hizkuntzaren irakaskuntza gramatika tradizionalan

oinarritzeko.

Artikulu frantsez hizkuntzaren inguruan bada ere, Espainian gaztearekin, eta Euskal Herrian euskarekin antzeko zerbait gertatu dela uste dugu.

ALDIZKARIAK

CUADERNOS DE PEDAGOGIA



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 177, 1990eko Urtarrila

Díez, M.C.- "El miedo entra en la escuela".- 34-36 orr.

Haurren artean, beldurra beti gertu dago. Sentimendu hau adieraztea oso garrantzizkoa da... Hona hemen, gai honetaz, esperientzi konkretu bat..

Giner, A.,Urios, R.- "De la imaginación a la realidad".- 37-39 orr.

Joku-sorpresaren (Decroly) bitartez, esperientzia pedagogiko baten deskribapena: helburuak (logikan eta hizkuntzan) eta antolaketa.


Fernández, J.- "La Casa de los Niños. Educar a los más pequeños".- 58-60 orr.

Batzu.- "La Casa de los Niños Torres de la Alameda".- 61-64 orr.

Madrideko nekazal giroetan Haur Hezkuntzaren inguruan dagoen Programa eta esperientzi konkretu bat.

Sanz, J.- "La prensa en la escuela".- 78-79 orr.

Bibliografía



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 178, 1990eko Otsaila

Díez, M.C.- "Dar en el blanco".- 36-38 orr.

Fisika ezagutzaren lanketa Piageten teoria jarraituz. Ekintza konkretuen proposamenak.

Monès, J.- "El exilio republicano de los maestros".- 64-68 orr.

Irakasle hauen prozesu eta aportazio pedagogikoa.

Monfort, M.- "Logopedia".- 84-86 orr.

Gai honi buruz, bibliografia eta hainbat informazio: prestakuntza, elkarteak, etab.

Imbernon, F.- "La formación del Profesorado".- 88-90 orr.

Erreformaren aurrean, irakasleen erreziklaiak dituen helburuak, beharrak,...



CUADERNOS DE PEDAGOGIA 179, 1990eko Martxo

Gai monografikoa: "Contra los analfabetismos".- 7-88 orr.

Alfabetatze Urte Internazionala dela eta, hainbat artikulu 4 sailetan:

*Radiografía del analfabetismo, 8-23 orr.

Teberosky, A.- "Reflexiones desde la psicolingüística".- 16-19 orr.

Irakurketa eta idazketaren azterketatik aportazioak.

*Panorama mundial.- 24-42 orr.

*Situación en España.- 44-81 orr.

Romero, P. , Lozano, A.- "La animación a la lectura como prevención".- 74-77 orr.

*Requejo, A.- "Libros y recursos".- 83-85 orr.

CLIJ



CLIJ 13, 1990eko Urtarrila

Fernández, B.- "Literatura infantil y educación moral".- 8-14 orr.

Ipuina eta bere erabilera Hezkuntzan.

Garralón, A.- "Literatura con valores".- 26-29 orr.

Errealitatea ezagutzeko eta "irakurtzeko", Haur Literaturaren funtzioa.



CLIJ 15, 1990eko Martxo

Bruzzone, G.M.- "Erase una vez Walt Disney".- 24-35 orr.

Artikulu honetan, autoreak Disneyren produkzioa aztertzen du, elementu konfliktiboak azpimarratuz.

Poslaniec, Ch.- "Animar la lectura".- 54-59 orr.

Irakurketa zaletasuna bultzatzeko, "Institut Français de Recherche Pédagogique". Erakundeak burutzen duen hainbat ekintza.

L'ECOLE MATERNELLE



L'ECOLE MATERNELLE 4, 1990eko Urtarrila

Gilabert, H.- "Pédagogie et formation. Un entretien avec Gaston Mialaret".- 2-6 orr.

Soulé, M.- "La psychiatrie de l'enfant et de l'adolescent aujourd'hui".- 19-23 orr.

Soinketa

Lefevre, A.M., Dubief, G.- "Motricité de manipulation" (3 fitxa).- 25-30 orr.

Matematika

Winther, M..- "Le jeu des "cadeaux".- 39-40 orr.

Esperientzi arloa

Boucher, M.J., Cresson-Frigola, G..- "L'air vécu d'une classe en maternelle: l'air nous environne".- 41-42 orr.

Batzu.- "Maîtresse, j'ai mal au ventre". 43-44 orr.

Gelako antolaketa

Billon, M.C., Ferrand, M.F..- "L'organisation et le fonctionnement des ateliers".- 47-48 orr.

Dantza

Bodak, S.- "Etre juste dans son corps".- 53-54 orr.

Plastika

Tinard, O..- "De l'expérience du jeu à une pratique plastique"..- 55-58 orr.


Ipuina

Clement, C.- "Le conte".- 59-60 orr.

Musika

Polonowski, C.- "Le son à travers sa hauteur".- 61-62 orr.

INFANCIA



INFANCIA 52, 1990eko Urtarrila-Otsaila

Ros, R..- "D'explicar contes".- 4-7 orr.

Ipinak kontatzearen magia, egoerak, kontatzaile eta hauren arteko komunikazioa,...

Mesini, E.- "Objectes i joguines".- 9-12 orr.

Objetuen eta jostailuen funtzioa, haurren jolasean eta garapenean.

Martin, L..- "El joc manipulatiu".- 13-17 orr.

Manipulazio-jolasaren tokia Hezkuntza-prozesuan eta apendizaiian, eta irakaslearen jarreraren garrantzia.

Batzu. "El llibre de cròniques".- 25-29 orr.

Bartzelonako "Escola del Mar"en egindako esperientziaren azalpena: Eskola bizitzan hauren parte-hartzea eta gertaeren komunikazioa.

Ollé, M.A..- "Quan arriban germà".- 30-31 orr.

Haur berriaren jaiotzak gurasoengan eta beste anai-arrebengan duen eragina.


Orsoni, B..- "Primera infancia, primera televisión".- 33-38 orr.

"Ferrara"ko Argenta Haur-Eskolan "Haurra eta Telebista"ri buruz egindako ikerketa baten ondorioak.

Cirigliano, P..- "L'infant a l'aigua".- 39-40 orr.

Patricia Ciriglianori ("Escuela Argentina de Natación para bebés"eko sortzailea) elkarrizketa.

PAINORMA



PAINORMA 9,1990

Subirats, M., Brullet, C..- "Coeducación".- 8-27 orr.

Koedukazioari buruz hainbat gai: historia, eboluzioa, gaurko kontzeptua, eztabaidak, etab.

Moreno, M.J., Pines, M.C., Jiménez, R.M..- "Hacia un proyecto en E.G.B.: Elaboración y uso de material didáctico no sexista".- 28-37 orr.

Koedukazioa aurrera eramateko proposamen konkretuak: esperientziak, eskolako antolaketa, liburuak, materialak,...

Catalá, A.V., García, E..- "¿Qué quieres ser de mayor? o las puertas que nos cierra la escuela?".- 50-52 orr.

Zein eduki kultural transmititzen da eskolan? neskak diskriminatuta ote daude eskolan? eskolak emakumeari atak itxi edo ireki egiten ote dizkio?

"Emakumea eta emakumearen hezkuntzari buruz Bibliografía" 79-82 orr.

LECTURA Y VIDA



1989ko Abendua

Adelina Arellano Osuna

"El lenguaje integral y la lectoescritura en la escuela primaria latinoamericana"

Artikulu honen autoreak alde batetik, irakurketa-idazketaren ikaste-prozesua azaltzeko zabaltzen ari den "whole language" teoriaren apurtasunak azaltzen ditu, aldi berean marko metodologiko honen barruan lan egiteko hainbat sugerentzia egiten dituelarik.

Ana T. de Bendito

"¿Se aprende a leer escribiendo?"

Idazketaren hobekuntzan hainbat kontzepturen lan sistematikoak eduki dezakeen garrantzia azpimarratzen da.

Irma Bertrand de Tornquist, Adriana Ibañez García

"La importancia de leerle a los niños"

Haurrei testu literarioak irakurtzeak duen garrantzia azpimarratzen da eta irakurketa ozenaren erabilerari buruzko hainbat sugerentzia egiten dira.

Norma Bedetta de Mangiola

"La lectura del diario en la escuela y su relación con la comunidad"

Prentsa irakurtzea, prentsa ezagutzea, prentsa egitea, irakurketa-idazketa lantzeko hainbat ekintzaren abiapuntu izan daitezke.


Artikulu honetan Argentinan egindako esperientzia baten berri laburra ematen da.

Emilia Ferreiro

"Un libro bien bonito"

Emilia Ferreirok argitaratutako material baten berriemate bibliografikoa aprobetxatzen du, ikuspean kognitibotik material argitaratuak dituen mugak eta arrikuak azaltzeko.

COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION



COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION

3-4 -1989

Luisa María Puertas

"La radio, instrumento motivador para el aprendizaje del euskera"

Euskara erabiltzeko baliabide motibagarrien beharra, ikaste-prozesuaren arrakastarako funtsezko elementuetariko bat da B ereduan. Ikuspegi honetatik planteatzen da O.H.O.ko 3. mailako ikasleekin egindako esperientzia hau.

Lanaren emaitzetatik ateratzen denez, baliabide honen erabilerak eragin positiboa du, bai ulermenari bai albisteak idazteko gaitasunari dagokionez ere.

Concha Sanz

"Un modelo metodológico alternativo para la enseñanza de la L2"

Artikulu honen egileak "Adierazpen Libre"ren printzipio eta metodoak azaltzen ditu, beti ere hizkuntzaren irakaskuntzarako beste proposamen metodologiko batzuen alternatiba bezala.

Proposamen metodologiko honetan, alde batetik, helburuen, ekintzaren eta emaitzen artean harreman logikoa ezarri nahi da; eta bestetik, garrantzi handia

ematen zaio ikaslearen ekimenari autonomiari eta adierazpenaren askapenari, eta guzti hau, hizkuntz nahiz bestelako helburuak behatu eta ebaluatzeko aukera ematen duten ekintzen inguruan.

Ana Martínez, Carmen Rodríguez

"Sobre la didáctica del texto expositivo"

Bi zati ditu artikulua: Lehenengoan, testu-mota honen ezaugarriak ematen dira, ikasleak aurki litzakeen beste testu-mota batzuekin konparatuz; eta abiapuntu honetatik, artikulua bigareen zatian azalpen-testuaren ezaugarrietan oinarritutako zenbait ekintza iradokitzen edo sujeritzen da.

Michael Cole; Peg Griffin

"Una aproximación socio-histórica a la re-mediación lectora"

Artikulu honetan, ikuspegi sozio-historikotik, zera proposatzen dute autoreek: irakurketa-idazketaren eraikuntz prozesuan gizateria hartuz joan zen sistema bitartekariak berreskuratzea eta irakaskuntzan sartzeta.

Emilio Sanchez, Mercedes I. Rueda eta Jose Orrantia

"Estrategias de intervención para la reeducación de niños con dificultades en el aprendizaje de la lectura y la escritura"

Irakurketaren ikaskuntzan ezagutza fonologikoak duen garrantzia azpimarratuz, mintzairaren alderdi honetan oinarrituriko zenbait ekintza planteatzen dute autoreek, ikaskuntza-eragozpenak dituzten ikasleentzat lagungarri izan daitezken.

Nuria Vila

"La lengua escrita en el Ciclo Medio I"

Artikulu honetan, haurrak egunero bere aurrean aurkitzen dituen idatzitako testu-mota ezberdinen karakterizazioa egin ondoren, erabilera didaktikorako bideak proposatzen dira, ez bakarrik hizkuntzako klasean, baita kurrikulumen gainerako arloetan ere.

Keith Topping

"Lectura conjunta: una poderosa técnica al servicio de los padres."

Irakurtzen ikasteko prozesuan gurasoen laguntza oso eraginkorra dela frogatua dagoen gauza da.

Elkarrekin irakurketarako prozesuan azalpen sakona egiten da artikulu honetan.

Pablo del Río


"La utilización de la prensa en la escuela"

Artikulu honen lehen zatian, oinarritzko zenbait kontzeptu aztertzen dira komunikabideek eskolan duten zeregina ulertzeko, batez ere, prentsak haurrentzat duen esanahiarekin lotuta. Bigarren zatian, zenbait proposamen konketu eskaintzen du erreformako kurrikulumean sartzeko eta praktikan aplikatzeko.

ITZULTAKO ARTIKULUAK HAUEK DIRA:

- Clement, Catherine. - "El cuento". - L'École Maternelle 4, 1990eko Urtarrila.
- Orsoni, Bianca. - "Primera infancia, primera televisión". - Infancia 52, 1990eko Urtarrila.

PRENTSAREN KOMUNIKAZIO SISTEMA



Hizkuntzaren jabetza prozesuan inguru soziolinguistikoa aldagal garrantzitsuenetako bat dela begibistan dago; hala ere, ezin dira ahaztu harremanak, Interakzioan sortzen den komunikazio-ekintza dela medio lortuko bait da hizkuntzaren garapena, eta pentsamendua- ren egituratze-prozesuaren kodifikaketa eta deskodifikaketa garatzeko eta aurreratzeko prentsa eskolarra bultzagarri gertatzen dela ziur gaude.

Komunikazio funtzioak hedatzeko prentsa eskolarrak ahalbide asko eskaintzen ditu ahozko eta idatzizko trebetasunak garatzeko, baliabide erakargarri eta motibagarri gertatzen delarik.

Bestalde, prentsa komunikabide bat denez gero, bere helburua komunikazioan datza eta honen edukin edota mezuak adierazteko komunikagarri bilakatzen da.

1/ PRENTSA, ESKOLA GIZARTE ETA NATURAREN ARTEKO ZABALGUNE AMANKOMUNA.

Prentsa eskolarra, esperientzia den heinean, komunikazio prozesu gisa hartzen dugu zeinean tresnak (natura eta gizarte arloko edukinak) irakas-ikas prozesuan funtzio komunikatibo esplizito xamar bat baneratzen duten interakzio bideak diren.

Zentzu hauetan ikasleak bere behar eta interesoi nahiz eguneko errealitate sozial diren prentsako informazioei espresio komunikatiboa eman diezaike, ikaslea bere mezuen igorle zein bestearen mezuen hartzaile bilakatuz beste komunikabideen irakurketarekin. Horrela, eta prozesu hauen ondorio bezala, ikaslea igorle zein hartzaile bilakatzen da.

Prentsa eskolarraren ekintza arloak, gizarte natura eta eskola artean lekua betetzen du, prentsa izanik iturri desberdinetako informazioa sortzen duten hiru koordinadak biltzen dituen konfluentzi puntua. (ikus grafikoa).

2/ PRENTSA ESKOLARREKO KOMUNIKAZIO SISTEMA.

Prentsa eskolarreko komunikazio sistemaren prozesua mass-mediaren eskema berari lotzen zaio:

Sa — Kb — Sh- Igorlea — Mezua — Hartzailea.

Eskema hau honela itzuliko genuke: ikasle bat (Subjektu eragilea) komunikabide bat erabiliz (prentsa eskolarra) eta O objektuari ematen dion formaren arabera (natura, gizarte edo kulturako edozein edukin) zerbait igortzen dio subjektu hartzaileari (OHoko beste ikasleak).

a.- Mezua informazio periodistikoa

Komunikazio deritzogun prozesu baten bidez subjektu hartzaileari igortzen zaion edozein edukin da informazioa periodistikoa horretan edukin esanguratsu eta erreferentzial baten barruan mezu bilakatzen da.

b.- Mezua ez da testu idatzia soilik baizik eta bera- rekin datozen ikusteko elementuak ere bai (testu-izenburua, argazkia, rekoadroa).

c.- Kanalea.

Inprimatu aurreko testua.

d.- Igorlea

Ikasle desberdinekin egindako lan-sailaren emaitza da (batek informazioa idatzi, besteak zuzendu, izenburua jarri besteak, forma osoa eman...).

e.- Informazio iturriak.

Ohizko definizioaren arabera mezu berriemai- lea egituratzeko balio duten gertakizunen kontaketa da. Berri bat bide hauetatik iritsi liteke: komunikabide desberdinetatik (irriti, telebista, egunkariak) edota etxetik, familiaratik...

3/ PRENTSAREN FUNTZIOAK

a.- Funtzio berriemailea.

Prentsaren oinarritzko funtzioa informazioa da, eta inola ere ez testu baten ordezkapena, edo testu baten osagarria, edota ezagupenez osatutako testua, baizik eta, komunikabidea izanik, informazioa eta eritziak ematea da lehen helburua. Bestalde, prentsa eskain dezakeen materialez baliatuz egoera berriak aztertzeko edo behatzeko balio dezake.

Beraz, gure inguruneari dagozkion berrien bilketaren eta datuen analisi-sintesiaren bidez informazioak eta eritziak gauzatuko lirateke.

b.- Funtzio gonbaratzailea.

Eskolan garatzen diren edukinak formal, abstraktu eta aseptikoegiak dira eta errealitate- tik datozen informazioekin alderatu beharra dago.

c.- Ingurunearekiko zabaltze-funtzioa

Eskola eta irakasleak bere inguruko errealitate- ra zabaltzeko bitarteko bezala.

Prentsa ez da inguru gertura irekitako leiho bat soilik, baizik eta inguru hau zabaltzeko gauza ere bai.

d.- Funtzio osagarria.

Euskarri didaktiko gisa erabili daitekeen mate- rial ugari eta gaurkotua eskaintzen duen neurrian.

Honela, hizkuntza, gizarte eta natur zientzietan ohizko eginkizunetako teknika instrumentalak osatzeko bitarteko bat aurkitu ahal izango da prentsaren.

BIBLIOGRAFIA

- CARL N. WARREN: "Géneros periodísticos informativos". Colección "Libros de comunicación social". A.T.E. 1979 (Barcelona)
- L. NUÑEZ LADEVEZE: "Lenguaje y comunicación". Para una teoría de redacción periodística. Ed. Piramide. Madrid 1977.
- MARTIN VIVALDI: "Géneros periodísticos" Ed. Paraninfo. Madrid 1987.
- VICENTE ROMANO: "Introducción al periodismo". Ed. Teide-Ciencias Sociales. Barcelona 1984.
- DONANCIANO BARTOLOME CRESPO: "La prensa en las aulas" Publicaciones ICCE. MADRID 1983.
- JOSE L. CORZO TORAL: "Leer periódicos en clase" Ed. Popular. Madrid 1986.
- BARTOLOME ROTGER, JUNA M^a ROQUE: "Como leer la prensa escrita" Ed. Escuela Española. S.A. MADRID 1982.

PRENTSA

Dok. Zent. Aldizkariak LISTADUA

- M.E.C. (89-5): "Prensa-Escuela, incluido en el Plan de Formación del Profesorado", Cuadernos prensa-escuela, 4, orr.
- ALARCON J.L. (82-1): "Las noticias de los niños", Cuadernos de Pedagogía, 85, 11-14 orr.
- ALONSO ERAUSQUIN M. (89-8): "La prensa en el diseño curricular base", Cuadernos prensa-escuela, 7, orr.
- ALONSO ERAUSQUIN M. (89-8): "La prensa en el diseño curricular base", Cuadernos prensa-escuela, 7, orr.
- ALTARES P. (90-2): "Contrapoder y vehículo informativo", Cuadernos prensa-escuela, 13, orr.
- ALVAREZ C.M.; BASELGA P. (90-2): "Jugar y experimentar", Cuadernos prensa-escuela, 12, orr.
- ALVAREZ N.; GUTIERREZ F. (89-12): "El periódico, un recurso en BUP", Cuadernos prensa-escuela, 10, orr.
- BAJEN A.; BASELGA P. (90-1): "Con el papel entre manos", Cuadernos prensa-escuela, 11, orr.
- BALLESTA PAGAN F.J. (89-7): "El profesor ante la prensa en la escuela", Cuadernos prensa-escuela, 6, orr.
- BASELGA P. (89-5): "Reconocer, comprender y trabajar la noticia", Cuadernos prensa-escuela, 4, orr.
- BASELGA P. (89-7): "El seguimiento de noticias", Cuadernos prensa-escuela, 6, orr.
- BASELGA P. (89-11): "El periódico en el área de Sociales", Cuadernos prensa-escuela, 7, orr.
- BASELGA P. (89-6): "El periódico en el área de Lenguaje", Cuadernos prensa-escuela, 9, orr.
- BASELGA P. (89-6): "El fichero de noticias, un recurso al alcance", Cuadernos prensa-escuela, 5, orr.
- CALVO HERNADO, M. (89-4): "Educomunicación", Cuadernos prensa-escuela, 4, orr.
- CARBONELL J. (89-6): "El curriculum como diversidad de espejos", Cuadernos prensa-escuela, 10, orr.
- CRESPO DE LARA, P. (89-11): "Flexibilidad y tolerancia", Cuadernos prensa-escuela, 9, orr.
- C.M. ALVAREZ, P. BASELGA, M.A. PEREZ Y F. ROJO (89-3): "Viaje al interior de un periódico", Cuadernos prensa-escuela, 5, orr.
- DE GUZMAN M. (89-6): "Periódicos en el pupitre", Cuadernos prensa-escuela, 5, orr.
- DEL RIO P. (89-6): "Prensa y escuela, principios psicopedagógicos", Cuadernos prensa-escuela, 5, orr.
- FERNANDEZ FERRES A. (77-1): "La lectura del periódico en el Bachillerato", Cuadernos de Pedagogía, 25, 13-15 orr.
- GARCIA GALINDO J.A. (89-4): "Recurso para la renovación educativa", Cuadernos prensa-escuela, 4, orr.
- GARRIDO Fernando (89-3): "Una práctica habitual en numerosos países", Cuadernos prensa-escuela, 3, orr.
- GONZALEZ GIL A. (90-3): "Un pensamiento lúcido ante los hechos sociales", Cuadernos prensa-escuela, 13, orr.
- GRUPO FEED-BACK (79-6): "Los comics en el aula. La comprensión del lenguaje", Cuadernos de Pedagogía, 54, 45-47 orr.
- IRIGOYEN R. (8911): "La prensa: mi novela preferida", Cuadernos prensa-escuela, 0, orr.
- JABONERO M. (90-1): "Por una educación integral", Cuadernos prensa-escuela, 11, orr.
- LANCHO J. (89-5): "Nunca como hoy tan pocos han informado a tantos", Cuadernos prensa-escuela, 4, orr.
- LANCHO J. (90-1): "El periódico, un medio natural de aprendizaje para las personas adultas", Cuadernos prensa-escuela, 11, orr.
- LARA TEBAR, Ramón (89-3): "Periódicos y transformación escolar", Cuadernos prensa-escuela, 3, orr.
- LEZCANO S. (89-7): "Enseñar sin aburrir", Cuadernos prensa-escuela, 6, orr.
- LUENGO TOLOSA P. (89-8): "Tras el 92", Cuadernos prensa-escuela, 7, orr.
- MARSA VALDOVINOS J. (90-2): "Contra la rutina", Cuadernos prensa-escuela, 12, orr.
- MARTINEZ L.M. (89-2): "Una escuela abierta a la actualidad", Cuadernos prensa-escuela, 1, orr.
- MIRALLES LUCENA R. (90-3): "¿Qué hay detrás de la noticia?", Cuadernos prensa-escuela, 13, orr.
- NOGUEROL A. (84-5): "Qué dice el periódico?", Cuadernos de Pedagogía, 113, 7-10 orr.
- PEREZ GOMEZ A.A. (89-12): "La historia de mañana en la prensa de hoy", Cuadernos prensa-escuela, 10, orr.
- PEREZ TORNERO J.M. (89-2): "La reconciliación entre la prensa y la escuela", Cuadernos prensa-escuela, 10, orr.
- PEREZ TORNERO J.M. (90-2): "Entre la atomización y la ideología", Cuadernos prensa-escuela, 11, orr.
- PUERTOLAS GARCIA A. (89-11): "Humor impreso", Cuadernos prensa-escuela, 9, orr.
- RODRIGUEZ E. (89-8): "Una tímida reflexión sobre el futuro", Cuadernos prensa-escuela, 7, orr.
- ROVIRA B. (77-1): "Taller de noticias", Cuadernos de pedagogía 25, orr.
- SALA C. (77-1): "Utilización del periódico en la etapa de E.G.B.", Cuadernos de Pedagogía, 25, 6-8 orr.
- SANTIAGO DELGADO T. (90-1): "El periódico en el Aula de Cultura", Cuadernos prensa-escuela, 11, orr.
- SOTO, MARIA PILAR (89-5): "Jugar con letras para superar el retraso escolar", Cuadernos prensa-escuela, 4, orr.
- TERUEL J. 982-1: "La Teja" El periódico de la escuela que también lo fue del pueblo", Cuadernos de Pedagogía, 85, 18-21 orr.
- TONUCCI F. (82-1): "Por un diario de clase", Cuadernos de Pedagogía, 85, 4-10 orr.
- VAZQUEZ REGAÑO J. (89-6): "Aprender con la Vuelta Ciclista a España", Cuadernos prensa-escuela, 5, orr.
- GUILLAMET J. (1988): "Conocer la prensa. Introducción a su uso en la escuela" Gustavo Gili, Barcelona.
- GONNET J. (1984): El periódico en la escuela. Creación y utilización, Narcea, Madrid.
- ROTGER B.; ROQUE J.M. (1982): Como leer la prensa escrita, Escuela Española S.A., Madrid.

IRRATIA ESKOLAN

Metodología

Irakaskuntza prozesuaren arrakasta edo porrotaren erantzukizuna ez da bakarrik metodoarena, oso mota ezberdinetako hainbat faktorek bait du eragina; baina ezagutzen transmisioa erraztuko duen baliabidea aukeratzekoan asmatzea, zoriarekin zerikusi gutxi duen ekintza da.

Irratia

Hizkuntz. jakintzaren hiru mailak —jakintza elokuzionala, idiomatikoa eta adierazpenekoa— harturik lan-esparrutzat, aioak; estrategia hori komunikazio-ekintzan oinarritua egonik, aipaturiko hiru maila horien tratamendua benetako egoeratan integartzeko gauza delarik. Ikasgelan benetako komunikazio-egoe-rak birsortzeko egoten den zailtasuna gaintzeko asmoz, irratia hartzen da gero eta gehiago esperientzia garatzeko tresna egokitzat. Jakina, guk hemen aipatzen dugun irratia hezkuntz helburua du: irradi-estiloaz eta generoaz baliatzen gara, baina irratia eskolatik sortzen eta kontrolatzen da.

Ez du, beraz, zerikusirik erakunde-zko, merkatal, libre edo pirata deritzen irratigintza ezberdinekin.

Gkure helburu nagusia lortzeko tresna egokitzat, irratia eskaintzen dituen abantaila batzuk aipatuko ditugu;

- Muntaketa erraza; Ez da beharrezkoa emisora izatea irratsaioak egiteko.
- Manipulazio erraza; irakasle nahiz ikasleek eragozpenik gabe ikasten dute aparatuak erabiltzen.
- Merkea da; Eskolako materialaren parte diren magnetofoiak, diskogailuak, mikrofonoak... aprobetxa daitezke. Bestalde, irradi-estudio txiki bat prestatzeko behar den aurre-dontua edozein eskolak izan dezake.
- Elementu motibagarria; ikaskuntzarako tresna bezala duen berritasunaz gain, konnotazio atseginak ditu, ikasleak bere lanean integratuz ditzakeenak. Eskola-irratia atsegin-garri gertatzen zaio, bere partaidetza eskatzen duen prozesu entreteni-

garri hori oso-osorik kontrola bait dezake.

- Irrati-generoen malgutasuna eta aniztasuna, ikaslearen psikologiara eta hizkuntz gaitasunera egokitutako testu-mota ezberdinak landu daitezkeelarik.
- Hizkuntza idatzia eta ahozkoa aldi berean lantzeko aukera ematen du, komunikazio-egoera motibatuak aurkeztuz.
- Badu dimentsio komunikatibo-afektiboa ere, taldekideak baino urrutirago proiektatzen dena, esperientziak eta mezuak elkartruka bait daitezke komunitateen barnean eta hezkuntz komunitate ezberdinen artean.
- Disziplinaniztun irakaskuntza ahalbidetzen du.
- Sormena estimulatu du

Luisa Mari Puertas
COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION 3-4
Aldizkariko "La radio, instrumento motivador para el aprendizaje del euskera"
Artikuluatik hartuta

BIBLIOGRAFIA

Eskola irratia dagokion bibliografia oso urria izan arren, eskola irratigintzan lagungarria izan daitezkeen liburu batzuen berri emango da jarraian.

BINGHAM, Ken. "Manual de grabación". Colección electrónica. PLESA/SM. Madrid, 1983.

Edozein grabazio mota, irratsaioak barne, ondo egiteko behar diren aholku praktiko eta errez batzuk azaltzen dira liburu honetan. Horrez gain, efektu bereziak sortzeko eta entzumezko tresneria babestu eta zaintzeko orientabideak. Liburu teknikoa baina oso erabilgarria.

EUIPO DE DURANGO. "La escuela que pudo ser". ZERO/ZYX. Madrid 1979.

Irakasle talde batek, Durangoko ikastetxe batetan, berak egindako esperientzia pedagogikoa aurkezten du. Nahiz eta oinarri teorikoak ez egon oso azalduz, lanerako metodologia, helburuak eta arloen antolaketa ondo zehazten dituzte. Eta, batez ere, Lengoia arloan, ahozko adierazmenaren lanketan, irratia daukan zeregina eta eraginkortasuna ondo erakusten dute.

GONZALEZ MONJE, Ferrán. "El dial de mi pupitre". Gustavo Gil S.A.. Barcelona 89.

Izendu hori izan arren, eskola irratitaz ez du aportazio handirik egiten, libururik gehiena irradi teknikatuz eta irradi profesional batzuei egindako elkarrizketaz osatzen baita; bakarrik azken orrialdeetan proposamen didaktikoak azaltzen direlarik.

HAWKINS, J. eta MEREDITH, S. "Audio y Radio". PLESA, MADRID 1983

Dibulgazio liburu honetan-marrakiz eta eskema adierazgarri batzuen laguntzaz-irratia nola funtzionatzen duen, irratsaio bat nola egiten den, uhin eta doinua nola zabaltzen diren, irradi-hargailu bat nola egin daitekeen eta horrelako aspektu teknikoak tratatzen dira.

HILLS, George "Los Informativos en radiotelevisión". Instituto Oficial de Radio y T.V. Madrid, 1981.

Irratian, informazioa egituratzeko eta zabaltzeko, Legoiari dagozkion oinarriko arauak eta lokutoreen betebeharrak argi eta garbi azaltzen dira liburu labur honetan. Horrez gain Irrati eta

Telebistaren mezuen arteko ezberdintasunak aipatzen dira.

PRADO, E. "Estructura de la información radifónica" ATE - Barceloan-1981.

Informazio Zientzietako Fakultatean erabiltzen den liburu labur honetan, egileak, irradi lengoaiaren ezaugarriak eta irradi jenero batzuen egitura (albiste, elkarrizketa, inkesta, kronika, mahai inguru eta erreportaiarena) azaltzen ditu. Oinarriko liburua da eta ulertterreza.

SAN MARTIN, Angel "Los recursos audiovisuales en el pensamiento pedagógico del profesor", Nau Llibres, Valencia 1986

Liburu teoriko honetan, gelan, edozein baliabide (ikusentzunezkoak bereziki) erabiltzen hasi baino lehen, irakasleak argi izan behar dituen aspektu pedagogiko batzuk planteiatzen dira. Oso liburu interesgarria da, batez ere metodologiari garrantzia ematen bait zaio eta ez, askotan gertatzen denez, baliabideari berari.

IRRATIA

(87-): "Eskola Irratien arrakasta", Eskola, 15, orr.

FALCON ROMERO A. (80-86): "¡Aquí radio Alfaraje!", Cuadernos de Pedagogía, 66, 62-64 orr.

FERRAN (1985): "Radio y educación", Cuadernos de Pedagogía, 123, 4-9 orr.

GOMEZ, E., EZQUERRA, A. (1988): "La radio portátil en una zona rural", Cuadernos de Pedagogía, 164, 46-51 orr.

GONZALEZ, A.M. (1985): "¡Aquí la radio!", cuadernos de Pedagogía, 123, 14-15 orr.

GRUAS, F. (1985): "Una emisora en la escuela", Cuadernos de Pedagogía, 123, 16-18 orr.

KURUTZIAGA IKASTOLA (DURANGO) (87-1): "Euskara lantzen Irratien bidez", Eskola, 18, orr.

LOPEZ, P. (1985): "Pedagogía de las ondas", Cuadernos de Pedagogía, 123, 10-11 orr.

ROCA, P. (1985): "El taller de radio", Cuadernos de Pedagogía, 123, 12-13 orr.

IRRATIA ESKOLAURREAN

“SAGU IRRATIA” ATEGORRIETA ESKOLAN.



a. Bigarren hizkuntza, kasu honetan, euskara, sentimendu pentsamendu eta nahiak adierazteko tresna bihurtu dadin, baliabide ezberdinak eta ahalik eta interesgarrienak -haurrentzat- erabiltzen saiatzen gara.

Hautetako bat irratia da. Irratiaren ideia euskarako koordinadorearen bidez heldu zitzaigun. Eta garbi jakin gabe nolako emaitzak izango genituen, eskolaurrean holako esperientziarik ez bait zen egin, probak egiten hasi ginen, mikrofono eta kaset batekin, lau eta bost urteko haurrekin.

Gure esperientzia oso laburra eta sinplea da, bainan konturatu gara, irratia baliabide aproposa dela haurraren euskara barrutia zabaltzeko.

Edozein baliabide erabili baino lehen helburuak finkatu behar dira, eta irratiarekin ere berdin.

Lehen esan bezala, gure helburu nagusia, euskara gelatik kanpo ere, baliagarri izatea da euskararen erabilpena gela barruan mugatua gelditu ez dadin.

Helburu zehatzei dagokionez, hauek dira gehienbat kontuan hartzen ditugunak.

a. Mezuaren sormena.

b. Hizkuntz-egitura ezberdinak erabiltzeko gaitasuna.

- d. Irrati saioaren ritmoa jarraitzea.
 - e. Albistearen esannahia bereiztea.
 - f. Aurre idazketa eta irakurketa lantzea.
- Eguneroko saioa honetan datza:

1. Agurra.
2. Eguraldia
3. Albisteak
4. Kanta edo ipuia edo olerkia
5. Azken agurra.

Gela txokoen bidez antolatua dugunez, eta txoko horietan lan talseka egiten dugularik, egunean talde batek prestatzen du irratsaioa, eta beraien artean banatzen dituzte eginkizun ezberdinak.

Agurra eta azken agurra aurrez finkatuak izaten dira.

Eguraldia eta albisteak, aurrez prestatutako orri berezi batzuetan


gidoi gisa- marrazkiaren bidez egiten dituzte.

Lehen pausoa marrazkia bakarrik egitea izan zen, eta hurrengoa marrazkia eta testua izan da, testu hau gehitzen joango delarik.

Ipuiak, olerkiak e.a.... beraiek aukeratutakoak izaten dira.

Aurrerago aste bukaeran -ostiralean- saio berezi bat egiteko asmoa dugu, astean izan den eguraldi eta albisteen bilduma; horretarako astean zehar egindako orriak jasotzen ditugu.

Irratsaioari garrantzi handiagoa eman nahirik, gure asmoa irratia txoko bezala antolatzea da. Irratia goizez egin beharrean arratsaldera pasatuz, eta arratsaldeko azken ordu erdian, txoko honetan egotea tokatzen zaion taldeak prestatueiko saioa gelako guztiei aurkeztu.



IRRATI SAIO BATEN ADIBIDEA

Musika.....

Agurra Egunon denori! Hau sagu irratia da. Gaur azteazkena da, asteko hirugarren eguna.

Musika.....

Eguraldia Eta orain eguraldia: Gaur eguraldi txarra dago. Hodeiak daude eta hotza egiten du.

Musika.....

Albisteak Orain albisteak: Gaur nere etxean hiru txita hil egin dira.

Musika.....

Beste albiste bat: Gaur goizean kalean, bi kotxe txoke egin dute.

Musika.....

Eta orain kanta bat, eta kantatzen dute.

Azken agurra Agur denori! Bihar berriro etorriko gara. Sagu irratia bukatu da.

Musika.....

Irratsaio bakoitza egiten ordu laurden bat pasatzen dugu.

- Isabel Lasa

- Gurutze Lopetegi
Ategorrieta Eskola
Donostia

IRRATIA ESKOLAURREAN

Las autoras de los dos artículos que aparecen a continuación describen sus experiencia de utilización de la radio con niños de preescolar (5 años).

A través de este recurso se desarrolla tanto la expresión oral como la escrita.

*Donostian, Amara Berri auzoan Katalina Erauso Ikastex
Publikoaren haur erdaldunen bi geletan.*

EZAUGARRIAK:

Hizkuntz eredua: "B"

Prozedura/Programa: Inmersioa.

Helburua: Haurrengan

Bikulturalismoa ahalbideratzea.

PROZESOA

Joan zen ikasturtean (88/89.ean), Euskara Koordinatzailearekin bildurik, Donostiako bailada honetan irratia ezartzea proposatu zen.

Nahiz eta gure haurrak 4 urtekoak izan, eta Euskara arloa nolabait buruturik gendukala ohartuaz, Euskararen erabilpena eskolatik kanpoko beste esparruetara, eta, hain zuzen, irratira zabal zitekeela haurrak ohararazteko, Koordinatzaileak proposatutako lanean parte hartzea erabaki genuen.

Irratiari izen bat aurkitzea izan zen lehen pausoa, ondoren Saioari aurkitzea izan zelarik.

Gure irratitari "Tirri-Tarra" deitu genion eta saioari berriz "Ernai saioa".

Ondoren, Imanol Urbietaren "Bertso tren" zintatik sintonia gisa bi musika aukeratu genuelarik, (bata Tirri-tarrantzat eta bestea Ernai saioarentzat), saioaren ezaugarriak zahaztu genituen.

Irratia ez genuen txoko gisara erabiliko ez eta beraiek bakarrik moldatzeko eran ere, baizik eta saio orokor batean talde haundiari zuzendutako lan mota bat bezala. Lanerako jarrera batzuk areagotzeko eta euskararen zenbait aspektu jorratzeko.

Hasieran, eta gure geletako plangintza jarraituz hiruhilabeterako saio bereziak burutzea erabaki genuen. Hortarako gure geletako hurrek behar zituzten egiturak eta aditz jokoak zaintzen genituen.

Saio horiek grabatu aurretik, astean behin edo, haur guztiakin entsaioak egiten genituen, saio horietan diskurtsoari zegozkien eta lagungarriak ziren zehaztutako keinuz lagundurik.

•Lehenengo saioan umeak jarrera batera bultzatzeko, aholku batzutatuz baliatu ginen. Adib.:

"Tzanpantzun tzanpantzun
andereñoak esandakoak
ondo entzun.
Tzanpantzin tzanpantzin
Beti euskaraz egin.
Mixi maxa mixi mex
Alferkerririk hemen ez".

•Bigarren saioan ere, lanarekiko jarrera bultzatuz, eta hizkuntzari dagokionez, batipat menpeko esaldien "n", "la", lantzen saiatu ginen. Adib.:

Eman behar diguzun berri ...
Amak zer esan dizun esan ...
Zera da esan didana
... oporrak izango ditugula.
... eskolan egin ditudan lanak ...
ikusiko dituela ...
... ikusiko dituztela.
Bai berri bitxia eman diguzuna!

•Hirugarrenean, San Juan suak aitzakizat, Euskalerriko ohituraz hitz eginez, abesti herrikoi bat sartuz, eta hitz baten kanpo semantiko lantzeko

asmoz, saioa osatu genuen. Hona hemen:

Berria zera da: gainean uda dugula.

Nola gainean? buru gainean esan nahi dūzute?

Ez noski!, gainean, kasu honetan, gertu, laister esan nahi du.

89/90. Ikasturtean, haurrek 5 urte zituztela, lehenengo hiruhilabeterako ohizko kareta bat prestatu genuen, urtarok landuz baina egiturak, aditzak e.a. aurreko lanetan oinarriturik. Adib:

Lagunok bertso horiek botako bazenizkigute guk ikasiko al genituzke?

Noski baietz! Ikasi ditugun bertso hauek botako bagenizkizue, berehalaxe ikasiko zenituzkete.

Ondo ba! Botatzen has zaitezkete.

"Berehalaxe datorkigu negua, urtarorik hotzena. Ondoren udaberria, urtarorik alaitsuena. Gero zalantzarik gabe uda, urtarorik beroena. Eta azkenik udazkena urtarorik xamurrena."

Ez ahaztu ba urtaroen izenak: negua, udaberria, uda eta udazkena, Zein baino zein urtaro ederragoa.

Bai bertso politikak bota dizkiguzutenak!

Guzti hauetaz gain, ikasturte honetan, egunero erritualizatua gendukan eguraldiaren berri emate, egun izendatze eta albiste jasotzea, irratiz ekiteari ekin genion, horrela irratia erabiltzea, eguneroko ekintza suertatu zelarik.

EGURALDIA

Orain, jarraian, eguraldiaren berri eman iezaiguzu.

Bai, emango dizuet.

Ea!, gaur zer eguraldi mota dago?.

Gaur hodeiak daude, beraz gaur egun hodeitsua da eta Noski ez du euririk ari

elurrik ari e.a.

Oso ondo! ! Ederki!!.

Eguzkia dago Bakarrik dago	Distarstek daude	Lainotua dago	Euria ari du
1	2	3	4
5			
Hairea dabil	Karkabarra ari du	Elurra ari du	

ALBISTEAK

Lokutoreak:

Orain lagunok, berrien atalera iritsi gara.

Berri-berri-berriak

amak esanak

Berri-berri-berri

egunkarian irakurriak, gure albistek.

Lokutoreak:

Ea ba! nortzuk diren berriak dakartzatenak

Nor zara zu?

Ni _____ naiz

Eta ze berri dakartzu?.

Hau da nere berria.

BUKAERA:

Lokutoreak:

Entzuleok!!, gaurko saioa bukatu dugu, agur guztioi eta bihar arte.

MUSIKA.

Albistek - berriak

Berri emailea mitama data 9-3-30

Berria, albitea Bilan am, nere albitea ni gure gaurko txerriak erataradon

Albistek - berriak

Berri emailea: 9-3-5

plastari botek mina hartu nuen

Albistek - berriak

Berri emailea amari's nate data 10-3-23

Berria, albitea orabanden mikel iburteza jungs aiaz

Adenda

Gure eguneroko ekintza hau bezelakoak, beste zenbaitek ere egiten dituztela, eta ogibide bezala gainera, jakin dezaten Euskadi Irratira irteera bat egin genuen.

Cristina Garate
Juana M^a Zubietta

*Experiencia realizada con niños de
Ciclo Inicial.
A través de la prensa y la radio
se trabajan distintas funciones de la
expresión escrita así como los distintos
tipos de texto derivados de ellas.*

IRRATIA ETA PRENTSA HASIERA ZIKLOAN

Prensa eta Irratiaren erabilera, irakurketa eta idazketaren irakaskuntzarako planteatu ditugun helburu orokorretan kokatu behar da. Horregatik egiten duguna deskribatzen hasi aurretik, arlo osorako finkatutako printzipio metodologikoak azalduko ditugu.

Irakurketa eta idazketaren irakaskuntza erabilera errealean kokatu behar da. Haurrek komunikazio-tresna honek betetzen dituen hizkuntz funtzio eta erabilera ezberdinak ezagutuko dituzten era berean, irakurketa-idazketaren tresnaz jabetuz joango dira; hau da; erabilera-arauak eta sistemaren arauak batera ikasiko dituzte haurrek.

Prensa, irratia eta testu idatziaren beste erabilera batzuk landuz (korrespondentzia, ipuina...), haurrek alde batetik tresna hauek betetzen dituzten funtzioak esperimentatuko dituzte; bestalde erabilera bakoitzak dituen legeak: ez dugula berdin eskutitz bat ala albiste bat idazten, esate baterako.

PRENTSA

Jarraian, Hasiera zikloko haurrek editatzen duten egunkariak eduki dituen aldaketak eta esperientziaren garapena azalduko ditugu.

• "Mormosetan 1"

Helduen prentsaren irakurketan oinarritutako egunkaria.

Egunkari hau egiteko bi pausu programatu eta jarraitu genituen:

- Prensa ezagutu
- Egunkaria sortu

Prensa ezagutzeko ekintza ezberdinak egin genituen progresio bat jarraitu genuelarik:

. Lehendabizi egunkarietako sekzio ezberdinak aztertu genituen, albisteak sailkatuz:

- . Kirol albisteak
- . Atzerriko albisteak
- . Espainiako albisteak
- . Euskadiko albisteak
- . Eguraldia
- . Horoskopoa
- . ETB eta zinea
- . Jokuak eta denbora-pasak
- . Publizitatea

. Hau aztertu ondoren, albiste bat egunkarian azaltzeko era ikusi genuen (izenburua nola agertzen den, albisteen mugak, izenburuen eta testuen arteko erlazioa....etab) honelako ekintzak eginez:

- . Albiste bakoitzari dagokion izenburua aurkitu
- . Albisteak emanik, izenburua asmatu
- . Argazkiak emanik izenburua asmatu

. Egunkarian sekzio guztiak berdin ez direla agertzen kontutan izanik (horoskopoa, eguraldia, ETBko programazioa, publizitatea...), sekzio bakoitzean azaltzen ziren ezaugarriak bereizterazten ahalegindu ginen.

• Antolaketa

Bigarren mailako hiru gelen artean egunkariaren

sekzioak banatu genituen. Gela bakoitzean lau talde antolatu ziren eta talde bakoitza sekzio batez arduratu zen.

Hurrengo pausua sekzio bakoitzeko albisteen bilketa egitea izan zen. Aukeratutako albistea irakurri eta ulertu ondoren, haurrek beren erara idazten zuten. Produktio-lan hau, bakarka edo binaka egiten zuten normalean.

Albistea idatzi eta gero, albiste bakoitzari zegozkion izenburua eta argazki edo marrazkiak biltzen zituzten.

Esan beharra dago, ulermen-mailan albiste batzuekin arazoak eduki zituztela eta andereñoaren laguntza behar izaten zutela.

Ortografiako zuzenketari buruz zera erabaki genuen: haurrek zalantza zutelako galdetzen zutenean, erantzutea, sistematikoki zuzendu gabe.

Albisteak idatzi ondoren, taldeko partaideek, egindako albisteen artean batzuk aukeratu zituzten eta egunkariaren formatoa prestatu ondoren, aukeratutako albisteen konposaketa egin zuten formatoaren neurriak kontutan izanik.

Egunkariaren izena denon artean pentsatu genuen eta hiru geletako lanak bildu ondoren, irakasleok egin genuen orrialdeen ordenaketa, eta fotokopiak egin.

Ume banaka batzuk, aurkibidea eta beste xehetasun batzuk prestatzeaz arduratu ziren.

Beste alde batetik, lehenengo mailako bi gelak, publizitateaz arduratu ziren.

Lehenengo mailako haurrak publizitateaz eta denborapasez arduratu ziren, beste testuinguruetan - dendan eta hizkuntz jolasaren txokoan- landutakoari beste erabilera bat emanaz.

• Balorapena

Ekintza burutu eta gero, ekintza ebaulatzerakoan alde on eta txarrak ikusten genituen. Alde batetik hizkuntza periodistikoarekin familiarizatzeko ekintza oso egokia ikusten genuen baina bestalde helduen prentsan agertzen diren berriak ulertzeko haurrek zituzten zailtasunaz ere konturatu ginen. Horregatik hurrengo ikasturtean zertu genuen periokikoan aldaketa batzuk egin genituen.

• "Mormosetan 2"

Mormosetan 1 ean erabilitako eskema bera erabili genuen, baina lan-prozeduran aldaketa batzuk sartu genituen:

. Eredua bezala erabili genituen berriak aukeratuak izan ziren ulergarritasuna ziurtatuz.

. Berriak produzitzerakoan periodikoaren sail batzuk kendu egin genituen (mundua...) eta eskola eta gelako albisteen garrantzi gehiago eman genien.

Periodikoa landu ondoren, IRRATIA landu genuen hirugarren hiruhilabetez zehar.

IRRATIA

Ekintza honi hasiera emateko lehenengo bi hilabeteetan, irratiak duen komunikazio-balioa azaldu ondoren, honen inguruan sortzen diren testu ezberdinak landu genituen. Hau da, elkarrizketan, albisteak, ipuin-asmaketa eta txiste eta asmakizunak.

. ELKARRIZKETAK

Elkarrizketaren egituraketa lantzeko, aurretik elkarrizketa lantzeko ariketa batzuk egin genituen:

. Galdera emanik, erantzuna asmatu.

. Erantzuna emanik, galdera asmatu.

Galde eta harridura ikurrak eta gidoiaren erabilera ere azpimarratu genuen.

. ALBISTEAK

Egunkaria egiterakoan albisteak ikusiak genituenez, arlo landutzat eman genuen, baina oso kontuan izan genuen egunkarian eta irratian albisteak emateko era ezberdina zela. Honetarako zuzenean irratsaio batzuk gelan entzun genituen.

. IPUIN-ASMAKETA

Narrazioa ipuin-tailerren bidez landuta zegoenez, ekintza honetan ez genien eredurik eman.

. TXISTE ETA ASMAKIZUNAK

Haurrek aukera zabala izan zezaten, irakasleok aurretik hauen bilduma bat egin genuen. Irratsaio bakoitzerako bilduma hauetatik aukera libreza zuten beraien artean presta zezaten.

• Antolaketa

Gela bakoitza lau irratetxetan banatu genuen. Irratetxe bakoitzak bere zuzendaria zuen, eta hau arduratzen zen bakoitzari zegokion lana banatzeaz.

Gela bakoitzean, ekintza kontuan izanik, lau txoki antolatu genituen. Haur bakoitzak bete behar zuen lanaren arabera, zegokion txokora jo behar zuen. Lan guzti hau ostzeko bi egun behar zituzten. Hirugarren egunean irratetxe bakoitzeko partaideek elkartu eta taldeko lana biltzen zuten eta saioaren gidoia antolatu ondoren, aurkezpen bat prestatzen zuten.

Postgarren egunean txandatu irratitik irratsa ematen zituzten.

AURTENGO IKASTURTEKO ESPERIENTZIA

Aurten 2. mailan, prentsa eta irratia batera lantzea erabaki dugu.

Lehen aipatutako progresioa eta lan-antolaketa mantentzen ditugu.

Jarraian azalduko ditugu irratia-sailak eta sail bakoitzerako programatu ditugun arloak:

• **Animalien bizitza:**

- Atal hau prestatzeko animalien bizitzari buruzko materialaz baliatzen dira haurrak, bereziki FHER argitaletzeko "Animalien bizitza" sailaz baliatu gara.

Hauek dira ekintza hau burutzeko programatutako pausuak.

- . Liburua/animalia aukeratu.
- . Liburua irakurri.
- . Emandako eskema baten arabera informazio garrantzitsuenak atera.
- . Irratsaioan irakurriko den testua idatzi.

• **Salda**

. - Irratsaioaren sail honetan aukera ezberdinak dituzte haurrek.

. **Pertsonai ezkutua**

Hurrek pertsonai ezberdinen (abeslari, kirolari...) datuak dituzte, datu hauen arabera, elkarrizketa bat asmatu behar dute, elkarrizketaren bidez pertsonai ezkutuari datu garrantzitsuenak eman behar dituzte, entzuleek asma dezaten.

. Txiste eta asmakizunak:

. Horoskopoa.

• **Albisteak**


- Hiru albiste-mota ekarri ditzakete:

- . Herrian, eskolan gertatutakoak.
- . Etxean jasotakoak.
- . Prentsan irakurriak.

Ekartzen dituzten albisteak, eskema baten arabera idazten dituzte eta ondoren prentsako sailen arabera sailkatzen, material honekin osatuz prentsaren atal bat.

• **Publizitatea**

Sail ezberdinen tartean emango diren iragarkiak idazten dituzte, eredu bezala aldizkariak dituztelarik.



Aurten irratiaaren inguruan sortutako materialez baliatuz osatuko da egunkaria, lehen esan dugun bezala ekintza biak lotuz.

Aipatutako ekintza ezberdinak burutu aurretik sail bakoitzean lantzen diren testuen berezitasunez gogoetak egiten ditugu haurrekin, kasu guztietan lan egiten duten txokoan ekintza burutzeko hainbat erreferentzia, eredu... ematen zaizkielarik.

KURTZEBERRI ESKOLA (ARETXABALETA).

HIZKUNTZAREN JABETZE PROZESUA BIZKORTZEKO ETA KOMUNIKAZIO FUNTZIOAK HEDATZEKO PRENTSA ESKOLARRAREN BIDEZ

En este artículo se analizan las posibilidades de la prensa en el desarrollo de la comunicación y se presenta un programa en el que se especifican los objetivos, actividades y habilidades que se desarrollan a partir de la utilización de este recurso en cada uno de los ciclos.

Hiztun batek komunikatzeko era edo modu desberdinak erabiltzen dituela ez dago zalantzarik. Baina gure⁹ gizartean eta nabarmenki fure hezkuntz-sisteman mintzamen eta idazmenaren hizkuntz konpetentziaren garapena funtsezko baldintza da kurrikuluma gainditzeko eta hau hizkuntz eredu guzietan gertatzen da.

Are gehiago euskara testuinguru ez-orekatu batean aurkitzen denez, komunikazioaren funtzioak murrizagoak gertatzen dira, Eskolako kurrikulum hori era aberaskor eta positibo batez lortu ahal izateko.

Hori dela eta, komunikazio-funtzioak hedatzeko asmoz, prentsa eskolarra aukeratu dugu, ahozko eta idatzizko trebetasunak garatzeko baliabide erakargarri eta motibagarri dela pentsatz.

Bestalde, prentsa komunikabide bat denez gero, bere helburua komunikazioaren datza eta honen edukin edota mezuak adierazteko komunikagarri bilakatzen da.

Hizkuntza jaio eta garatu egiten dela eta, hizkuntza horren erabilera garatzekokomunikazio-egoerak ezin besteko baldintzak gertatzen direla jakin badakigu. Onartu beharra dago

ere, orain arte eskola gehienetan hizkuntzaren aspektua erabat lantzeagatik komunikazio-egoerak ahaztu edo alde bater utzi ditugula.

Programa berriei gainbegirada bat ematen badiegu, ahozko zein idatzizko trebetasunak garapena komunikazio egoeretan praktikatzeko dela ikusiko dugu.

Guzti horrekin ados bagaude, galdetu begarra dago, komunikazio-egoeretan praktikatzeko den zein baliabide erabil litekeen asmo horrek aurrera egin dezan.

Arestian esandako guztia kontutan harturik, hizkuntz-ekintzen artean irakur eta idazmena garatzeko eskaintzen dituen ahalbideengatik aukeratu genuen prentsa eskolarra.

Hizkuntz ekintza batek ahalbide asko dituela esaten dugunean esan nahi duguna zera da: ekintza horrek hizkuntz trebetasun guztiak lantzeko aukera ematen duela eta guzti hori komunikazio-egoeretan praktikatzeko dela. Adibidez, ingurunea behatzeko edota informazioa biltzeko galderak agitea, eritziak ematea, begarrezko gertatzen da eta, aldi berean, komunikazio-iturri eta harrobi, ikaslea komunikazio-ekintzetan murgildurik aurkitzen delako.

Prentsa eskolarraren helburuak

Prentsa eskolarraren helburu nagusienetako bat ahozko eta idatzizko hizkuntza eta hauen erabilpena eta hedapena izanik, hau lau ataletan sailkatzen dugu.


Euskararen hedapena: 1.- Ikasgelen artean testuak: Ikasgela bakoitzeko ikasleek zerbait adierazten diote beste ikastalde bati testu baten bidez.

2.- Ikasgela bakoitzeko ikasleak: Eskola bakoitzeko ikasleek zerbait adierazten diete beste eskolako ikasleentz, prentsa bidez hauen familietara, auzoetara eta hirira ere hedatzen delarik. Komunikazioa feed-back norabidean gauzatzen da.

(gela — eskola — auzoa
— familia — hiria)

Lan teknikak: Ahozko eta idatzizko diskurtsoak antolatze gaitasuna. Hau da, testu bakoitzari dagokion formulen erabilpena.

Testuak eta literatura: Kazetaritza-genero bakoitzari dagokion formulak zein testu desberdinak ezagutu eta aplikatu. Adibidez, albiste testua, erreportai-testua. Halaber ohizko



PRENTSA ESKOLARRAREN IRAKAS-IKAS PROZESUAREKIKO IHARDUERAK

1	IDAZKETA	2	3
<p>Kurtso batetako irakas-ikas prozesurako faseak</p> <p>1. FASEA</p>	<p>INGURUNEAREN BEHAKETARAKO</p> <ul style="list-style-type: none"> - Datuak jasotzea - Datuak ordenatu - Datuak alderatu eta berardentatu <p>TESTUAREN IDAZKETA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Datuen oinarrituz testua idatzi, zuzendu. - Titularraren jarri - Testuari itxura eman. - Testuaren beiridazketa - Testuaren emaketazioa. 	<p>- Taidetza: prentsa oinarritzat hartuz informatibo edo albistegei bat prestatu eta eman.</p> <p>- Prentsa berriak kritikatzeko emanaidi bat prestatu.</p>	<p style="text-align: center;">IRAKURKETA</p> <p>Kazetaritza testuei buruzko elementu amankomunak ezagutu eta bereiztu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Titularrak. - Testioa. - Argazkia. - Rekoadroa. - Argazki oina.
<p>2. FASEA</p>	<p>Titularraren idazketa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren sintesia egin. - Sintesia esaldi batetara murriztu. - Esaldiaren hitz kopurua 10/12 hitz baino gehiago ez. - Titularraren baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> - Egizkortasuna adierazi - Zenbaitasuna adierazi - Argitasuna adierazi 	<ul style="list-style-type: none"> - Prentsan azaltzen diren mezuak beste era batetan adierazi. - Saii bateko albisteak hitz gubitan laburtu edota zabaldu. 	<p>Titularraren azterketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testua eta titularraren arteko lotura aztertu. - Testuaren sintesia den aztertu. - Titularraren zentzua aztertu eta testuak dionarekin ondo dihoan ikusi.
<p>3. FASEA</p>	<p>Albistearen egituraketa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Albistearen zatirik interesgarriena lehen zatia beteko du. - Barne egitura: Nor-zer-noiz-non-nola-zer-gatik galdegileei erantzun. <p>Erreportaiaren egituraketa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren itxura. Beharantzko narrazioa. - Garrantziko gertakizunetik gubienara idatzi. (Piramide alderantzikatu baten zentzuan) 	<p>Kazetari papera hartuz, mahai-inguru bat zuzendu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gai baten inguruan ikuspuntu desberdinak azaldu. - Elkarrizketa bat burutzeko galderak prestatu eta agertu. 	<p>Kazetaritza-jeneroei ezaugarri nabarmenak aztertu:</p> <p>1- Albistea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testua informatzailea den aztertu - Testuaren egituraketa, datu aipagarrienak goikaldetan dauden aztertu. - Nor-zer-non-noiz-etab. galdegileei dagozkien testu atalak bereiztu.
<p>4. FASEA</p>	<p>Testu motak: I. informatzailea; (Nor-zer-non-noiz-nola)</p> <ul style="list-style-type: none"> I. narrazioa: Testuari jarraitutasuna eman. I. argitzailea: Xebetasan gehiago eta osagarriak erantsi eta argudioak eman. <p>Teknika-Piramide alderantzikatu</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gidoi bat egin - Itxeraketa: ingurunearen behaketa datuen bilketa, hausmarketa, interpretaketa, analisisa, eta sintesia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Berri batzuen kontaketa egin. - Erreportai baten azalpena egin. - Mahai-inguru bat zuzendu. - Gai baten azalpena egin. - Gai bat defendatzeko argudioak eman. - Gai baten laburpena egin. 	<p>2.-Erreportaiaren ezaugarriak:</p> <p>a. Testuaren itxura: paragrafoek piramide alderantzikatu baten zentzuan idatzi (garrantziko eko aipagarrien gertakizunetik garrantzi gutxiengana idatzi)</p> <p>b. Testuaren slijetoa: gertakizunaren aurre datuak eta ondorioak - Gertakizuna.</p> <p>c. Erreportaiaren gaia: edozein gai.</p> <p>d. Estiloa: narrazio informatzailea-zuzena testua hirugarren pertsonan idatzi.</p>

Kazetaritza jeneroak eta gaiak

Erdiko zirkloak.
-Albisteak
-Donostia
-Kirola
-Ekologia

Goiko zirkloak.
-Albisteak
-Donostia
-Kirola
-Ekologia

Erreportaia gaiak
-Lurraren dardarak
-kontsumoa
-Zabartegia
-Bidegarriak

zenbait testu literario ezagutu eta erabili.

Gramatika: Testu hauetatik abiatuz hizkuntzaren azpi sistemen elementuak finkatu eta garatu.

Hurrengo orrialdeak organigrama baten bidez prentsa curricularra adierazten, eta horien ondoren ikastunitatearen helburuak.

Lan metodologia

Esperientzia honen lan metodologia lau ardatzetan gauzatzen da:

- 1.-Lanaren planifikaketa: Aztertzaileen arteko parte-hartzea beraien iharduerak hobetzeagatik.
- 2.-Ekintzaren aplikapena. Proposamen didaktiko bat, prentsa eskolarretik abiatuz ikasgelan aplikatzea.
- 3.- Lanaren behaketa sistematikoa eta erreflexioa: Proposatutako ekintza garatu edo lortu dena aztertu, aztertzaileen artean, irakas/ikas prozesua berregokitzeko.
- 4.- Ekintza proposamen berriak birplanifikatu.

Esperientzia honen bidez planteatu izan den metodologia azterketa ekintza izan da, hau aipatutako lau fasetara mugatu delarik.

Aipatutako fase horiek gure esperientziaren prozesuan egon badira ere, fase bakoitzak eskatzen duen sakontasuna, zehaztasuna edota metodo zientifikoari dagokion egitasunari erantzuteko zenbait tresna elaboratu behar diren aurkitu ginen. Hori dela eta, fase horien zehaztapena bigarren hiruhilabetetik aurrera garatu izan da. Geroztik datuetan oinarrituz zenbait erreflexio egitera bultzatu gaitu prozesuak berplanteatuaraziz.

Gure lanaren planifikaketa.

Lehen aldian planifikaketa orokor bat burutu zen funtsezko atalei erantzutearren.

a.- Antolaketa:

Aztertzaileen antolaketa.

Ikasleen antolaketa.

b.- Ikastunitateen elaborapena eta aplikapena.

c.- Esperientziaren behaketarako tresnen elaborapena.

Bigarren aldian, proposamen didaktiko bakoitzaren zehaztapenetara iristeko aztertzaile bakoitzak irakas prozesuari dagokion programa burutu du, eta horren

ondoren proposatutako eta lortutakoen erlazioa zertan den aztertzaileen artean eztabaidatu da. Jokatzeko moduak garrantzi nabarmena jasotzen du.

2.- Ekintzaren aplikapena, programa zehatzat egin arte edukin honen aplikapena oso malgua izan da, diferentziak sistematizazioan eman direlarik. Programak egin ondoren sistematizazioaren kontzeptua izan da aztergai. Honek baldintzatzen dituelako irakas/ikas prozesu horren lorpenak (zeren eta iharduerak frekuentziaren arabera barneratzen bait dira).

Horrela edukin horren aplikapenean edo gauzatzean edo azken boladan hurbilketa batetara iritsi bagara ere, aurreko prozesua irekiegia gertatu izan da.

3.- Lanaren behaketa eta erreflexioa, aurreko puntuetan adierazi dugun bezala lanaren behaketa eta erreflexioa programa zehatzak egin ondoren etorri dira. Hain zuzen, prozesu honen bigarren aldian.

Horrez gero, irakasle-aztertzaile bakoitzak irakas/ikas prozesuaren jarraipen kontrol fitxa baten bidez egin du. Tresna honen bidez arlo kuantitatiboa jasotzen da, testuen ekoizpena neurtzen delarik. Horren ondorioz, ikasgelen arteko lorpen diferentziak eta proposatutako kontsignak izan dira talde honen erreflexio arloa. Honi zuzen irakasle bakoitzaren lanaren antolaketa (zer egin-noiz-zenbat?) eta nola egin galdegaiak aztertzeraren eraman gaitu hurrengo prozesua birplantertzegatik. Proiektuaren bostgarren puntua: "Azken frogaketa eta diagnostikoa hase-rako-diagnostikoarekin parekatuz".

Esperientziaren lehen aldia eta bigarren aldiaren arteko diagnostikoa ez da emaitzetara mugatu, iraka/ikas prozesuan eman diren aldaketetara baizik. Hau da esperientzia honen giltzarria.

Hala eta guztiz ere, azterketa/ekintza honi dagokion azkertaren faseak gero garatuko baditugu ere, esan bahrara dago lehen urratsak ematen hasiak gaudela. Aztertzaileen ikuspegi teorikoa eta praxiaren arteko egoitzapen eta aldaketa batzuk ondiko puntuetan azaltzen ditugu:

Aztertzaile bakoitzak bere lan-programa idatziz azaldu du kideen artean.

Irakas/ikas prozesuak, neurtzeko jarrera intuitiboak gaintuz, datuetara murgilduarazi gaitu.

Prozesua etengabe berrikustean datza proposatutakoa lortutakoarekin batera doazen aztertzea eta horren zergatiak talde barruan egitea.

Aztertzaileen artean erreflexionatzen ikastea, interakzioaren bidez metodologiak aldatuaraziz.

Agurtzane Jaio.

Madrileko Hezkuntz eta Zientzi Ministraritzako PRENTSA-ESKOLA

Programaren arduraduna den
LUIS MIGUEL MARTINEZ-EKIN HIZKETAN

Luis Miguel Martínez, responsable del Programa Prensa-Escuela del Ministerio de Educación y Ciencia nos habló extensamente, en una interesante conversación tenida hace algunos días, del Programa Prensa-Escuela.

Siendo difícil transcribir todo el contenido de la conversación, presentamos de forma resumida las ideas que nos han parecido de mayor interés.

—Zer da Programa

—Prensa-Eskola Programa, M.E.C./Hezkuntz eta Zientzi Ministrariatzaren ekimen bat da, 1985-86 ikasturtean Erreformaren barruan sortua, onuragarriagoa eta gizartera irekiagoa egongo den eskola lortzen laguntzeko helburu nagusiaz; aniztasuna eta errealitatearekiko lotura handiagoa izango dituen eskola, ikasleen partaidetza eta zentzu kritikoa bultzatuko dituena. Eskola aktiboa, solidarioa eta tolerantia, pedagogi berrikuntzan konprometitua. Irakurketarako zaletasuna eta prentsa isatziaren erabilera anitza eta berriztailea bultzatuko dituena.

Prensaren erabilera plural eta berriztailea, eskolaren aldaketa-tresna izan daiteke: egunero kalean gertatzen dena beldurrik gabe jaso behar du eskola honek, irakasleak izan behar duelarik gertaera horien moldatzaile nagusia ikasleengana egokitzeko.

—Programa hau haur-eskolatik hasita

—Programa hau haur-eskolatik hasi behar da. Maila hauetan sortzen ari diren esperientzia guztiak sistematikoki biltzea zail den arren esperientziazio-fase honetan,

badakigu askotan ikasleek oso ondo pasatzen dutela eta ikasi ere bai, eta irakaslearen sormenak ekintza asko ahalgidetzen dituela. Esperientzia askotan zentzuz eta emaitza harrigarriak lortuz ari direla lanean



esan genezake.

—Irakaslegoaren prestakuntza eta lagungarriak

Berrikuntza honetan giltzarria edo gakoa irakaslearengan datza eta M.E.C. zeharo murgildua dago irakaslego honen prestakuntza eta orientabidean, ondorengo proposamen hauekin:

-Irakaslegoa prestatzeko ikastaroak: estatu-mailan, Irakaslegoaren Prestakuntzarako Zuzendariordeza Orokorrak deituak (Beti gonbidatzen dira Hezkuntzan transferentziak dituzten Autonomi Elkarteak).

-Material lagungarriaren zabalkundea

—Beste oharpen batzuk

Prensa eskolan programak eskolaren berrikuntzarako elementu berri bat sartzea suposatzen du. Beste baliabide batzuekin batera, bilaketa, ikerketa, informazio kritiko, etab.erako esparrua sortzea.

Prensa baliabide bat gehiago da beste askoren artean.

Prensa modu askotara eta era berrietan erabili behar da, hots, zentzuz erabili behar da; honetarako, ondorengo hauek hausnartu behar ditugu hasteko:

. zer-nolako eskola dugu orain eta zer nahi dugu gerorako

. zein helburu lortu nahi dugu

. zer egin nahi dugu prentsaz,

zein pedagogi esparrutan erabiliko dugu.


. zer-nolako prentsa nahi dugu...

Oinarrizko gogoeta edo hausnarketa hauek beharrezkoak dira, zeren eta, edonolako prentsa axolagabe erabilita, nahi ez dugun eskola-mota bat betirako luzatzen aritzea gerta bait liteke.

IPUINAK KONTATZEKO

SALGAI DAUDEN

IRUDI LAGUNGARRIAK



elkarrizketak asmatu...etab. izan daitezke honen erabilerak.

4.- Láminas para la escenificación de cuentos:

"Las siete cabritas"

Ipuinaren irudiak banatu, aukeratu, aldatu etab. egin daiteke jolas honekin.

5.- "Còm sòn les choses": "Irudi bilduma"

Adjetiboak lantzeko aukera bikaina eskaintzen du. (60 irudi)

6.- Imágenes para hablar:

Bostnaka egoera bat osatzen dute. (60 irudi)

1.- Taller de cuentos: (Nathan, Abacus)


Ipuin klasikoak kontatzeko edo eta berriak asmatzeko jokurako karta egokiak (5).


2.- Juego de Cartas: "El sastrecillo valiente" (Vicens-Vives).

Ipuinetik abiatuz, irudi hauekin hainbat ekintza burutu daitezke: liburua osatu, pertsonaien ormairudiak egin...

3.- Teatro para la escenificación de cuentos: "Pitufo" (Vicens-Vives)

Materiala haurren artean banatu eta ipuina osatuz joan, narratzaile papera egin, pertsonaien arteko





DOKUMENTAZIO ZENTRUA (0-7 urte)

ESKORIATZA (Gipuzkoa)